



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2018ko laugarren hiruhilekoa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- 2018ak euskal familien konfiantzaren berreskurapena finkatzen du
- positiboagoa inguruko familietan baino, konfiantza galtzen dutenak
- jauspena Frantzia eta Erresuma Batuko konfiantzan; Alemanian, mantendu




1 | 2018ak euskal familien konfiantzaren berreskurapena finkatzen du

2018ko laugarren hiruhilekoak euskal familien konfiantza indizearen berreskurapena adierazten du (+3, +2,5 puntu), urteko lau hiruhilabetekoetatik daturik hoberena izanda.

Izan ere, 2018a egonkortasun eta familien konfiantzaren jokabide erlatiboki egonkorrengatik bereizi da, balio arinki positiboetan kokatu dena.

Ondorengo grafikoak adierazten du 2018a profil egonkorrena erakutsi duen urtea izan dela eta familien konfiantzaren urteko batz besteko balioa errepikatu egiten da 2017arekiko (+1, bi urteetan), 2014 (-19), 2015 (-6) eta 2016 (-5) urteetako emaitza negatiboetatik urrun.




2 | positiboagoa inguruko familietan baino, konfiantza galtzen dutenak

2018ko laugarren hiruhilekoan Estatuko (-7, ehuneko -4 puntu) eta EBko (-3, ehuneko -1 puntu) familien konfiantzak atzera egiten du eta urteko hirugarren hiruhilekoan agertutako okerragotze joera mantentzen da.

Euskal konfiantzaren bilakaera 2018an emaitza hauetatik aldendu egiten da, hobekuntza finkatzen baitu (emaitza bera 2017 eta 2018an) eta balio positibo batekin (+1). Honen aurrean, Estatuko familien konfiantzaren galera azpimarratzen da (-2 puntu), negatiboan itxiaz urtea (-3) EBko familietan bezalaxe (-1), hobekuntza eman den arren (+2 puntu).

Hazkunde ekonomikoaren eta enpleguaren sortzearen igurikimenak ahultzen dituzten albisteak, ezegonkortasun geopolitikoarekin batera (hauteskundeak, gizarte- eta lan-gatazkek, etab.) Estatuko eta EBko kontsumitzaileen konfiantzaren hobekuntza eza baldintzatzen arituko liratekeen faktoreak dira.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE, Estatu eta EB*



* IV. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-28 eta Espainiarentzako. Urria-azaroko batez bestekoa.


3 | Jauspena Frantzia eta Erresuma Batuko konfiantzan; Alemanian, mantendu

2018ko laugarren hiruhilekoan Frantziako (-14, -3 puntu) eta Erresuma Batuko familien (-6, -2 puntu) konfiantzaren galerak jarraitu egiten du. Izan ere, bi kasuetan, urteko emaitza orokorrak ezkortasuna adierazten du bai Frantzian (-9) eta baita Erresuma Batuan ere (-5).

Alemaniko familietan emaitza positiboak mantentzen dira (+4), urteko lehen zatian izandako emaitzak azken bi hiruhilabetekoetan okertzen badira ere. Horrela, 2018an, Alemaniako familiek konfiantza balio positiboetan mantentzen dute (+4), eta 2017koarekiko antzekoa da (+3).

Kontutan izan behar da, ekonomiaren hazkundearekin eta enpleguarekin loturiko alderdiez gain, aztertutako herrialdeak familien konfiantza baldintzatzen duten egoerak bizitzen ari direla (hauteskundeak, Brexit-aren adostea, gizarte gatazkak, etab.).

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* IV. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-28 eta Espainiarentzako. Urria-azaroko batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK


- ekonomia orokorraren joeraren inguruko konfiantzak hobera egiten du
- langabeziak jaisten jarraituko du, erritmo are handiagoan ere
- hobetu arren, familia-ekonomiari buruzko igurikimena negatiboa izaten dirau
- eta, azkenik, aurrezkiaren inguruko igurikimena jada positiboa da
- 2018ak euskal familien konfiantzaren susperraldia finkatzen du

4 | Ekonomia orokorraren joeraren inguruko konfiantzak hobera egiten du

Urteko laugarren hiruhilekoan familien %58ak baloratzen du, hurrengo hamabi hilabeteetan, ekonomiaren egoera antzeko mantenduko dela egungoarekin alderatuz. Bestalde, pertsonen %24ak uste du zerbait hobea izango dela eta %18ak, aldiz, zerbait okerragoa.

Modu honetan, ekonomia orokorraren inguruko konfiantza-indizeak hobera egin du (+3, +2) eta “inflexio-puntua” izan daiteke familien itzaropenen bilakaeran, beherakorra izaten zebilena 2017ko bigarren hiruhilekotik.

2018an, euskal kontsumitzaileek ekonomia orokorraren egoerari buruz duten konfiantza positiboa da (+3), baino okerrera egiten du 2017ko batez besteko igurikimenarekin alderatuz (+6). Emaitza honen irakurketa da euskal familiak nolabaiteko egonkortze bat aurreikusten arituko liratekeela ekonomiaren orokorraren hobekuntza erritmoan.




5 | Langabeziak jaisten jarraituko du, erritmo are handiagoan ere

2018ko laugarren lauhilekoan hamar pertsonatik bostek uste du, hurrengo hamabi hilabeteetan, langabezia egungoaren antzeko mantenduko dela (%50, ehuneko -2 puntu), hamarretik hiruk uste du murriztuko dela (%32, ehuneko +2 puntu) eta hamarretik bik espero du hazi egingo dela (%10, ehuneko 0 puntu).

Modu honetan, langabeziaren bilakaerari dagokion konfiantza-indizea baikorra izaten jarraitzen du (+7, +2 puntu) eta hamabosgarren hiruhilekoa da jarraian langabeziaren murriztea aurreikusten.

Osotasunean, 2018an, euskal familien konfiantza-indizea langabeziaren bilakaerari dagokionez (+10), 2017an eman zenaren ia berdina da (+12) eta agerian uzten du lan-merkatuaren hobekuntza familien giroan eta modu positiboan laguntzen dute hobekuntza-igurikimenean eraikitzean.

Langabeziarekiko igurikimenak




6 | Hobetu arren, familia-ekonomiari buruzko igurikimena negatiboa izaten dirau

Hurrengo hamabi hilabeteetan, familia-ekonomiaren bilakaeraren indizeak balio negatiboetan jarraitzen du (-2, +2 puntu), baina dirudienez hobetzen eta balio neutroetara hurbiltzen doa. Horrela, 2016ko bigarren hiruhilekotik – eta une puntaletan izan ezik- indize honek gorabeherak izan ditu -3 eta -5 balioen artean, 2018ko laugarren hiruhilekoarena balio positiboena izanik.

Modu honetan, urtearen osotasunean, euskal familien konfiantza-adierazlea familien ekonomiaren bilakaerarekiko negatiboa izaten jarraitzen du (-4) baina zerbait hobetu da 2016 eta 2017arekin alderatuz (-5 bi kasuotan).


Adierazi behar da, kontsumitzaileen konfiantza osatzen duten lau indize partzialetatik negatiboan jarraitzen duen bakarra dela, baina geroz eta balio baxuagoarekin.



7 | eta, azkenik, aurrezkiaren inguruko igurikimena jada positiboa da

Euskal familien aurrezkiaren aurreikuspen-indizeak adierazten du pertsonak duten balorazioa euren aurrezkiak nolakoak izango denari buruz (hurrengo hamabi hilabeteetan) orain arte burutu dutenarekin alderatuz (azken hamabi hilabeteak). 2018ko laugarren lauhilekoaren emaitzek adierazten dute indizea positiboa dela lehen aldiz galdeketa hau hasi zenetik (2014).

Modu honetan, urteko laugarren lauhilekoaren emaitzak euskal familiek euren aurrezki-aukeren inguruan izan duten iritziaren hobekuntza-joera finkatzen du, oso negatiboa izatetik (krisiaren momentu okerrenetan) hobetzen joan dena gutxinaka enplegua eta familien diru-sarreraren oinarria suspertzen joan den neurrian (soldatak eta lansariak, batez ere). Hala ere, urtea osotasunean hartuta, indizea negatiboa izaten jarraitzen du (-5), 2017ko erdia izanda beti ere (-10).



8 | 2018ak euskal familien konfiantzaren susperraldia finkatzen du

Euskal familien konfiantza laugarren hiruhilekoan suspertu egiten da, urteko emaitza hoberenarekin (3, +2,5 puntu) eta 2017ko bigarren hiruhilekoan hasitako hobekuntza osatuz.

Kontsumitzaileen konfiantza osatzen duten lau indize partzialak hobetu dira eta aurrezkiari buruzko itzaropenen bilakaera azpimarratzen da (+3, +8 puntu) eta familien ekonomiaren joerari buruzkoa (-2,+2), “negatiboan” dagoen adierazle bakarra bada ere. Hauei gehitzen zaie ekonomia orokorraren martxaren (+3, +1 puntu) eta langabeziaren (+7, +2 puntu) inguruko igurikimenen berreskurapena.

Halaber, badirudi familien konfiantzaren hobekuntza ingurugiro ekonomikoa eta enpleguari dagokionez aurrezkiaren igurikimenetan nabaritu dela, honen indizeak balio positiboak lortu baititu lehen aldiz azken lau urteetan.

2018ko balantzak euskal familien konfiantza positiboan ixten du eta balioa errepikatzen du 2017arekiko (+1 bi kasuotan), pasatako urteekiko hobekuntza berresten duten emaitzak, baina neutraltasunetik oso gertu dauden balioetan (*“oraindik ez dira baikorrak”*).


Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>2018</u>	<u>IH-18</u>	<u>IIH-18</u>	<u>IIIH-18</u>	<u>IVH-18</u>	<u>aldea</u>	
Familien konfiantza	-5	1	1	1	2	-0,5	3	2,5	▲
Ekonomia orokorra	-7	6	3	5	3	1	3	1	▶
Etxeko ekonomia	-5	-5	-4	-6	-3	-4	-2	2	▶
Langabeziaren bilakaera	6	12	10	12	15	5	7	2	▶
Aurrezteko gaitasuna	-12	-10	-5	-10	-7	-5	3	8	▲



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- euskal kontsumitzaileek aurreikusten dute prezioak azkarrago igoko direla
- oraindik negatiboa bada ere, erosketa uneko balorazioa hobetu da
- “erosketa handiak” egiteko itzaropena pixka bat okerragotzen da
- etxebizitza eta ibilgailua erosteko asmoa mantendu egiten da
- euskal kontsumitzaileek kontsumo (handiaren) susperraldia eusten dute




9 euskal kontsumitzaileek aurreikusten dute prezioak azkarrago igoko direla

Bi familietatik batek uste du prezioak azken hamabi hilabeteetan igo diren antzeko eran igoko direla (%51), azken hiruhilekoko ehunekoarekiko zerbait gehiago (%49). Bestalde, prezioetan hazkunde handiagoa egongo dela uste duen pertsona-taldea mantentzen da (%37) eta gutxitu egiten da hazkunde motelagoa aurreikusten duen taldea (%14tik %12ra).

Modu honetan, prezioen bilakaeraren igurikimen-indizea hurrengo 12 hilabetetarako zortzigarren hiruhilekoz dago negatiboan (-25), 2017ko lehen hiruhilekotik.

Azken finean, euskal familiak aurreikusten ari diren prezioen hazkunde-ibilbidea orain arte 2018an ematen ari denaren antzekoa da. Zehazki, KPIa EAEn (urria) urtetik urterako¹ %2,2ko hazkundea erregistratzen du, geroz eta urrutiago dagoena 2015 (% -0,1), 2016 (%0,7) eta 2017ko (%1,6) data berdinean eman zenarekiko, hurrenez hurren.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?² (pertsonek %a)



¹ %2,2 eta %1,1eko hazkundeak IKP orokorrean eta azpian dagoenean, hurrenez hurren (produktu energetikoak eta elaboratu gabekoak kenduta). 2018ko urria..

² Azken 12 hilabetei dagokienez.


10 | oraindik negatiboa bada ere, erosketa uneko balorazioa hobetu da

Nola baloratzen duzu, orokorrean, egungo momentua etxeko artikuluak erosteko (altzariak, etxetresna elektrikoak, elektronikoak, etab.)?

2018ko laugarren hiruhilekoan, hiru familietatik bik uste dute egungo momentua axolagabea dela nolabaiteko garrantzia duten etxeko edota erosketa pertsonalak egiteari dagokionez (%63). Baina, gainera, hazi egiten da erosketa une aproposa dela uste duen taldea (%15, ehuneko +4 puntu) eta jaitsi egiten da momentu txar bat dela uste duen taldea (%22, ehuneko -5 puntu).

Erosteke unearen balorazioaren adierazlea laugarren hiruhilekoan negatiboa da (-7), baina azken bi hiruhilekoekiko zerbait hobetzen da (-15 eta -11). Hala ere, 2016rako batez besteko balio eratorria -9koa da, okertu egiten duena 2017ko emaitza (-2).

Erosteke unearen balioztapena¹
(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez


11 “erosketa handiak” egiteko itxaropena pixka bat okerragotzen da

Nolakoak uste duzu izango direla altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak, etab. bezalako erosketak edo etxeke gastuak datozen 12 hilabeteetan¹?

2018ko laugarren hiruhilekoak euren erosketak, azken hamabi hilabeteetan egindakoekin alderatuz, antzekoak izango direla uste duten familien taldea murrizten da eta hazi egiten dira zerbait (%15, ehuneko +2 puntu) eta askoz (%10, ehuneko +5 puntu) baxuagoak izango direla uste dutenak, zerbait altuagoak izango direla uste dutenekin alderatuz (%15, ehuneko +5 puntu).

Modu honetan, familiako erosketa handien igurikimenen indizea negatiboa da (-8) eta okerragotzen da azken hiruhileko emaitzekin alderatuz (-3, -6 eta -5, lehenengo, bigarren eta hirugarren hiruhilabeteetarako). Eta, urtean oro har, erosketa handien egitearen indizea -6an kokatzen da, eta azken urteetakoari dagokionez oso antzekoa da (-10 eta -7, 2016 eta 2017an).

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(pertsoneen %a)




¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.

etxebizitza eta ibilgailua erosteko asmoa mantendu egiten da

Euskal kontsumitzaileen %2ak hurrengo urtean zehar etxebizitza erosteko nolabaiteko asmoa azaltzen du, pasa den hiruhilekoan izandako antzeko balioa (%2,5). Azken finean, 2017 eta 2018an, euskal kontsumitzaileen %2 inguruk etxebizitza erosteko nolabaiteko asmoa adierazten dute, pasatako urteekin alderatuz hobekuntza arin bat azaltzen duen ehunekoa (%1,4 inguru).

Etxebizitza erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



2018ko lehen hiruhilekoa ezkerotik ikusten da ibilgailu baten erosketari (ia ziurra) aipatzen duten euskal kontsumitzaileen kolektiboaren hazkunde progresiboa. 2018ko laugarren hiruhilekoan ehuneko hau %5,8koa da eta balorerik altuenen artean mantentzen da 2014ko lehen hiruhilekotik. Baina, egia esanda, egonkoritu da pasa den hiruhilabetekoarekin alderatuz.

Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)






13 euskal kontsumitzaileek kontsumo (handiaren) susperraldia eusten dute

2018ko laugarren hiruhilekoan, euskal kontsumitzaileek...

- Argi eta garbi aurreikusten dute gorakada inflazionista, prezioen bilakaeraren inguruko igurikimen negatiboarekin (-25).
- Euren iritzia hobetu da erosketa uneari dagokionez, balio negatiboetan mantentzen bada ere (-7).
- Arinki okerragotzen da erosketa handiak egiteko dituzten igurikimenak (-8); hau da, gailentzen da erosketa berberak edo gutxiagoak egiteko asmoa, hauek goaraziko lituzkeen taldean hobekuntza aukera gutxi daudelarik.
- Eta mantendu egiten da ibilgailua edota etxebizitza erosteko asmoa, azkeneko hiruhilekoetako balio antzekoetan, hobekuntza segmentu bat finkatuz.

Azken finean, 2018a ixten da prezioen gorakada adierazten duten familien aurreikuspenarekin (-23. -5 puntu) eta, euren ingurumen sozio-ekonomikoaren eta enpleguaren balorazioan hobekuntza egon arren, okerragotu egiten da erosketa uneari buruzko balorazioa (-9, -7 puntu). Baino, hala ere, erosketa handiak burutzeko igurikimenak mantentzen dituzte (-6, -1 puntu) –balore negatiboetan kokatzen direnak- eta finkatu egiten da etxebizitzaren erosketa (%1,8) edota ibilgailua (%5,3) aipatzen duen kolektiboa.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>2018</u>	<u>I H-18</u>	<u>II H-18</u>	<u>III H-18</u>	<u>IV H-18</u>	<u>aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	13	-17	-23	-24	-18	-23	-25	-2	
Erosteke unearen balorazioa	-8	-2	-9	-5	-11	-15	-7	8	
Erosketak egiteko igurikimenak	-10	-7	-6	-3	-6	-5	-8	-3	


¹ 2014, ICC neurriaren hasiera momentua

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazleak



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2017	2018	I H-18	II H-18	III H-18	IV H-18	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	1	1	1	2	-0,5	3	▲
• Estatua*	-1	-3	-2	1	-3	-7	▼
• EB*	-3	-1	0	-1	-2	-3	▶
○ Frantzia*	-6	-9	-6	-7	-11	-14	▼
○ Alemania*	3	4	7	6	4	4	▶
○ Erresuma Batua*	-6	-5	-4	-5	-4	-6	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	6	3	5	3	1	3	▶
• Etxeko ekonomia	-5	-4	-6	-3	-4	-2	▶
• Langabezia	12	10	12	15	5	7	▶
• Aurrezkia	-10	-5	-10	-7	-5	3	▲
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-17	-23	-24	-18	-23	-25	▶
• Erosteke unearen balioztapena	-2	-9	-5	-11	-15	-7	▲
• Erosketak egiteko igurikimena	-7	-6	-3	-6	-5	-8	▼
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	1,8	1,8	1,2	1,6	2,5	2,0	▶
• Autoa	4,8	5,3	3,7	5,7	5,9	5,8	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* IV. hiruhileko datuak urria-azaroko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2017	2018	I H-18	II H-18	III H-18	IV H-18	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	1	1	1	2	-0,5	3	▲
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	5	6	5	8	5	7	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	2	2	3	2	1	4	▲
• 55 eta 64 urte bitartean	0	0	1	0	0	2	▶
• 65 eta 74 urte bitartean	-5	-7	-9	-3	-12	-4	▲
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa/ norberaren konturakoa)	6	6	6	6	6	6	▶
• Langabea	-7	-8	-5	-8	-13	-5	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-4	-4	-6	-2	-9	-1	▲
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-14	-14	-16	-14	-14	-10	▲
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	2	3	1	4	2	4	▶
• 2.800 €-tik gorakoa	15	12	13	13	9	11	▶

⇒ (±2 puntuko aldea)

III Beste adierazleak

	IV H – 17	I H – 18	II H – 18	III H – 18	IV H – 18 _p	(azkena)
BPG	3,0	3,1	2,9	2,6	--	III hir.
Familien kontsumoa	2,9	2,9	2,6	2,3	--	III hir.
Afiliazioa	1,7	-0,2	1,2	-0,9	2,0	azaroa
Erregistratutako langabezia	-2,6	-0,8	-3,8	-0,1	-5,3	azaroa
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	-0,8	0,4	1,0	-0,2	--	III hir.
Etxebizitzen salerosketa	-10,4	40,7	-1,6	-2,4	--	iraila
Ibilgailuen matrikulazioa	22,5	-4,8	8,3	-10,2	-6,2	azaroa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoa) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator, dokumentu honetan aipatzen dena familien konfiantzaren indize bezala, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAeko 800 laguni egin zaie.
- Azaroaren 5etik 16ra (2018ko IV. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm